

PUNTO DE VISTA

Festival Internacional de Cine Documental de Navarra

Nafarroako Zinema
Dokumentaleko
Nazioarteko Jaialdia

International
Documentary Film
Festival of Navarra

NAFARROAKO GOBERNUKO KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUAK "PUNTO DE VISTA" ZINEMA DOKUMENTALAREN NAZIOARTEKO XI. JAIALDIA ANTOLATU DU. HONA HEMEN OINARRIAK

ATARIKOA

Punto de Vista Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia zinema dokumentalaren joera berriak ezagutzeko topalekua da. 2005ean sortu zenetik, Jean Vigoren konpromiso etiko eta zinematografikoa izan du erreferentetzat. Urtero ospatzen da, Iruñean, eta Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak antolatzen du.

2017an, jaialdia Iruñean egingen da (Baluarte-Biltzar Jauregia eta Auditorioa), martxoaren 6tik 11ra.

SAIL OFIZIALA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

1. Lanak onartzea eta haien edukia

1.1. Lehiaketan edozein nazionalitatetako film dokumentalek har dezakete parte, 2014ko abuztuaren 1etik aurrera egin badira. Kanpoan geratuko dira fikziozko filmak, instituzionalak, publizitatekoak, erreportajeak edo kazetaritza lanak.

1.2. Ez da mugarik gaiei, iraupenari eta jatorrizko hizkuntzari dagokienez.

1.3. 35 minutuko iraupena edo txikiagoa duten pelikulak film laburtzat hartuko ditu programazio taldeak eta horien lehiaketan sartuko dira. 35 minututik gorako iraupena duten pelikulak, berriz, pelikula luzetzat jo, eta pelikula luzeen lehiaketan sartuko dira.

1.4. Hizkuntzari dagokionez, jatorrizko hizkuntza ingelesa, gaztelania edo euskara ez bada, ingelesezko, gaztelaniazko edo euskarazko azpigituluak jarriko dira aurkeztutako bertsioan.

1.5. Filma ez da onartuko baldin eta, aldez aurretik, Espainiako zinema-areto komertzialetan eman bada, modu komertzialean editatu bada edo Espainiako telebista-kateren batek edo Interneteko plataforma batek eman badu (edo zinemaldia baino lehen ematekoa bada). Puntu hori bete ezean, filma jaialdiko sail ofizialetik aterako da.

1.6. Lehiaketa honetara aurkeztea bestelako sariekin edo entitate publiko edo pribatuen diru-laguntzekin bateragarria da, 1.5 puntuan xedaturiko salbuespenak salbuespen.

2. Eskabideak aurkeztea

2.1. Zinemaldira aurkezten diren filmen gaineko eskubideen jabe diren ekoizle edo zuzendariak beraiek inskribatu beharko dituzte filmak. Izena ematea doakoa da, eta zinemaldiaren web orrian egingen da (www.puntodevistafestival.com), bertan filma inskribatzeko gaituko den sisteman.

2.2. Zinemaldiaren antolatzaileek ustekizuna dute ezen lehiaketan parte hartzen duten ekoizle edo zinemagileak aurkezten dituzten filmak erakusteko eskubideen jabe direla. Dena dela, zinemaldiaren antolatzaileek ez dute beren gain hartzen oinarri hauen puntu hau urratzeagatik etor litekeen inolako erantzukizunik.

2.3. Zinemaldiak inskripzioaren sinatzailearekin baizik ez ditu negoziatuko filmak zinemaldian parte hartzearen ondoriozko alderdi guztiak, eta hura izanen da arduradun bakarra, filmaren ekoizpenean parte hartu duten gainerako enpresak eta pertsonak gorabehera.

2.4. Filmak web orriaren bidez inskribatzeko azken eguna 2016ko irailaren 30a da. Izena emateko eskabidean URL linka gehituko da filma ikusteko eta baita filma ikusi eta behera kargatu ahal izateko pasahitza ere. Ez da DVD kopiari onartuko, pelikulak ikusteko soilik Interneteko estekak erabiliko dira.

2.5. Zinema jaialdiaren antolatzaileek bermatzen dute jaialdira igorritako pelikula hautapen batzordeak bakarrik behera kargatu eta ikusiko duela. Hautaketa prozesua bukatuta, film guztiak ezabatuko dira, hautatu direnak izan ezik.

2.6. Filmak inskribatzeko unean, filmaren ekoizle edo banatzailearen zinpeko aitortpena eskatuko da, zeinean adieraziko den filma ez dela eman Espainiako zinema-areto komertzialetan, ez dela modu komertzialean editatu eta ez dela eman Espainiako telebista kateetan edo Interneteko plataformetan (edo ez dela emanen 2017ko apirilaren 1a baino lehen), baldin eta filma jaialdirako hautatzen bada.

2.7. Jaialdiaren antolatzaileek inskripzioaren eta filma jaso izanaren ziurtagiria igorriko diete lehiakideei mezu elektroniko bidez.

3. Hautapena.

3.1. Nafarroako Gobernuak Kulturako zuzendari nagusiak hautapen batzorde bat izendatuko du, aurkeztutako lanen artean hautaketa egiteko. Zinemaldiaren Zuzendaritza Artistikoko kideek eta zinema dokumentalen arloko aditu batzuek osatuko dute batzorde hori.

3.2. Batzordeak lanak hautatuko ditu, zinema jaialdiaren oinarri diren ideiei eta kalitate eta sormen irizpideei jarraikiz (ikusitako esteka oinarrien amaiera).

3.3. Hautaketaren emaitzak 2016ko abenduaren 20a baino lehen jakinaraziko zaizkie parte-hartzaileei, mezu elektronikoz edo interesdunak jakinarazpena jaso izana frogatzen duen edozein bideren bitartez. Egun hori pasatzen bada interesdunen bati hautaketaren emaitzen berri berriaz eman gabe, lana ez dela hautatu ulertuko da.

3.4. Lana hautatzen baldin bada, lehiakideak proiektuaren kopia igorri beharko du formatu hauetako batean: DCP edo bereizmen handiko fitxategi digitala (jaialdiko sail teknikoak ezartzen dituen ezaugarri teknikoekin). Zinema jaialdiak, gainera, hautatuak izan direnei

markarik gabeko segurtasun kopia eskatzen ahalko die, behar bezalako kalitatea duen formatu batean.

3.5. Jaialdiko zuzendaritzak eskubidea du kopiarik ez onartzeko, baldin eta zinemaldiko sail teknikoaren kontrola egin ondoren proiektiorako desegokiak direla ondorioztatzen bada. Halaber, kopian irregulartasunik balego, txosten teknikoa igorriko die filmen titularrei edo ordezkariari.

3.6. Zinemaldiak bere gain hartuko ditu Sail Ofizialerako hautatutako lanak igortzeko gastuak. Euskarriak DCP badira, eta KDM beharko balute proiektiorako, KDMak prestatzeko kostuak filmaren ekoizleek edo ordezkariak ordainduko dituzte. Zinemaldia kopien segurtasunaz arduratuko da, horiek egoitzara iristen direnetik itzultzen diren arte.

3.7. Hautatutako lanak erakusteko kopiak 2017ko otsailaren 20a baino lehen iritsi beharko dira Iruñera. Helbide honetara igorriko dira:

Baluarte Nafarroako Biltzar Jauregia eta Auditorioa. Punto de Vista Zinema Jaialdia
Baluarte plaza. 31002 IRUÑA (NAFARROA)
ESPAINIA

3.8. Sail Ofizialeko filmak jatorrizko bertsioan emanen dira, gaztelaniazko, ingelesezko edo euskarazko azpigituluekin, baldin eta horietako ezein ez bada jatorrizko hizkuntza. Zinemaldia arduratuko da kopiaren gaztelaniazko azpigituluak prestatzeaz. Horretarako, filmaren jatorrizko behin betiko bertsioaren artxibo digital bat eskatuko da eta kasuan kasuko azpigituluak gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez, zeinak barne erabilerakoak eta isilpekoak izanen diren.

3.9. Zinemaldiak obra hautatuen jendaurreko bi emanaldi antolatuko ditu, eta ez du emanaldi-eskubiderik ordainduko horiengatik.

3.10. Lehiatzaileak zuzendari(ar)en irudi bat eta pelikularen beste bi, gutxienez, eman beharko ditu, Punto de Vista jaialdiaren katalogoan edo beste edozein hedabidetan erabiliko direnak. Halaber, zinemaldian zehar hedabideei banatuko zaien informazio materiala eman beharko du, eta jaialdiari baimena, ikus-entzunezko hedabideek (barnean sartuta jaialdiaren web orria) bere dokumentalaren hiru minutuko zatia erabil dezaten.

3.11. Erreferentzia behin katalogoan sartu ondoren, ezinezkoa izanen da alderdi baten erabakiz filma lehiaketatik kentzea.

4. Epaimahai ofiziala

4.1. Kulturako zuzendari nagusiak nazioarteko epaimahai ofizial bat izendatuko du. Epaimahaia arlo horretako aditu eta profesionalak osatuko dute. Epaimahaiak kanpoko idazkari bat behar badu, zinemaldiko zuzendaritza artistikoak bat izendatuko du, eta erabakiak hartzen direnean bertan egonen da, betiere boto-eskubiderik gabe.

4.2. Epaimahai ofizialak Punto de Vista Nafarroako Zinema Dokumentaleko 2017ko Jaialdiaren amaierako ekitaldian ezagutaraziko du bere epaia, ematen den sari bakoitzerako arrazoiak azalduko dituena, laburki.

4.3. Epaimahai ofizialaren erabakiak apelaezinak izanen dira.

5. Gazteriaren Epaimahaia

5.1. 18 eta 25 urte arteko 50 gaztek osatuko dute Gazteriaren Epaimahaia. Gazteriaren Epaimahaian parte hartzea borondatezkoa izanen da eta berekin ekarriko du Sail Ofizialeko film guztien emanaldietara joateko konpromisoa, goizeko saioetan. Epaimahai horretako kide izateko inskripzioa zinemaldiaren web orriaren bidez egingen da, 2016ko azaroaren 2tik aurrera. 50 gazte baino gehiagok izena eman ez gero, izena zein ordenatan eman duten, horren arabera egingen da azken hautaketa.

6. Sariak

6.1. Epaimahai ofizialak sari ofizialen adjudikaziorako proposamena egin beharko du:

- "Punto de Vista" sari nagusia film onenarentzat: 10.000 euro. Epaimahaiaren iritziz zinemaldiko sail ofizialean pelikularik onena zein den, saria hari emateko proposamen arrazoitua egingen du, filmaren iraupena edo nazionalitatea gorabehera.
- Jean Vigo saria zuzendari onenarentzat: 5.000 euro. Sari horren bidez Jean Vigoren irudia omentzen da, eta sail ofizialeko pelikulen artean Vigoren lanaren balio etikoak eta formalak hobekien islatzen dituenari emateko proposamen arrazoitua egingen du epaimahaiak.
- Saria film labur onenarentzat: 3.000 euro. Saria 35 minutuko edo gutxiagoko iraupena duen film onenari emateko proposamen arrazoitua egingen du epaimahaiak.
- Aipamen bereziak: epaimahaiak gehienez ere bi aipamen berezi egingen ditu, diruzuzkidurarik gabe.

Hiru sari ofizialak hiru pelikula desberdinek jasoko dituzte, alegia, film edo zuzendari batek ezin izanen du sari horietako bat baino gehiago bildu.

6.2. Epaimahaiak eman gabe uzten ahalko du edozein sari.

6.3. Horrez gain, sari berezi hauek emanen dira:

- Ikusleen sari berezia pelikula onenarentzat: 1.650 euro.
- Gazteriaren saria pelikula onenarentzat: 1.500 euro.

6.4. Ikusleen sari bereziari dagokionez, zinemaldiko zuzendaritzak zehaztutako erregelamenduaren bidez arautuko da, eta jaialdian izan diren eta hautaketa prozesuan parte hartu nahi duten ikusleek egingen dute saria emateko proposamen arrazoitua, zinemaldiko zuzendaritzak ezartzen duen prozedurarekin bat.

6.5. Gazteriaren sarirako proposamen arrazoitua Gazteriaren Epaimahaiak egingen du, zinemaldiko zuzendaritzak ezartzen duen prozedurarekin bat.

6.6. Sari bereziak jaialdiaren amaierako ekitaldian ezagutarazi eta banatuko dira.

6.7. Sarien adjudikaziorako proposamenak Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiari igorriko zaizkio, eta hark jaialdia amaitu eta bi hilabeteko gehieneko epean emanen du ebazpena proposamenekin bat, bai eta ordainketak egiteko agindu ere. Adjudikazioaren gaineko ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Ordainketa banku transferentzia bidez egingen da, lana oinarri hauen 7.2 puntuan

adierazitako formatuetan aurkezten bada eta kreditu nahikoa eta egokia baldin badago. Sarien zenbatekoak garbiak dira eta ez zaie atxikipen fiskalik aplikatuko.

6.8. Pelikula onenarentzako "Punto de Vista" sari nagusiaren dotazio ekonomikoa eta pelikula labur onenarentzako sariarena erdiz banatuko dira ekoizpen sozietatearen edo pelikula irabazlearen ustiatze-eskubideen titularraren eta pelikulako zuzendariaren artean. Zuzendari onenarentzako Jean Vigo sariaren dotazio ekonomikoa, Ikusleen Sari Bereziarena eta Gazteriaren Sariarena osorik ordainduko zaizkio pelikula irabazlearen zuzendariari.

6.9. Saria jaso duten filmen ekoizleek edo ordezkariak konpromisoa hartzen dute horren berri emateko filmen gaineko publizitate eta material guztietan, jaialdiko logotipoa erabiliz, jaialdiak berak emanen duena.

7. Saritutakoen konpromisoa eta lanen zabalkundea

7.1. Zinemaldiaren antolatzaileek konpromisoa hartzen dute aurkeztutako lanak osorik ez daitezen kopiatu edo zabaldu, lanak haien ardurapean dauden bitartean. Jaialdiaren zabalkundea egiteko, hautatutako lanen zatiak erabiltzen ahalko dira komunikabideetan (oinarri hauen 3.10 puntuan zehazten den bezala).

7.2. Sarietako bat jaso duten lanen egileek konpromisoa hartzen dute horien kopia bat emateko DCP edo bereizmen handiko fitxategi digitalean (zinemaldiko departamentu teknikoak ezartzen dituen ezaugarri teknikoekin), eta kopia bat DVDan jaialdiko bideotekarako. Kopia horrek gaztelaniazko azpтитuluak izan beharko ditu, jaialdiak gaztelaniazko azpтитuluekin .srt artxibo bat bidali ondoren. Jaialdiko artxiboan utzitako kopiak Nafarroako Gobernuak antolaturiko beste zinemaldi eta irabazi-asmorik gabeko kultur ekintza batzuetara bidaltzen ahalko dira, betiere jasotako sarien aipamena eginez.

8. Lanak itzultzea

Hautatutako lanen kopiak, emanaldiak egiteko erabiliko direnak, lehiatzaileari itzuliko zaizkio, inskripzioan ezarritako jatorrizko tokira, 2017ko apirilaren 15a baino lehen. Bidalketa gastuak jaialdiak ordainduko ditu.

9. Oinarrien interpretazioa eta errekurtsioak

9.1. Lanak lehiaketara aurkeztuz gero, oinarri hauek oso-osorik onartuko dira. Oinarriak interpretatu eta betearaztea zinemaldiaren zuzendaritzari dagokio.

9.2. Arau hauen interpretazioan desadostasunik bada, gaztelaniazko testua aplikatuko da.

9.3. Zinemaldiko zuzendaritzak argituko du arau hauen interpretazioaren gainean sor daitekeen edozein zalantza.

Argibideak:

Punto de vista Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia
Kultura Lankidetzaren eta Berrikuntzaren Atala.

Navarrería, 39.

31001 IRUÑA (NAFARROA)

ESPAINIA

www.puntodevistafestival.com

E-mail: info@puntodevistafestival.com

Tel.: 34-848 424677